Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko apirilaren 27a, astelehena — 77 — Lunes, a 27 de abril de 2015

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*173/2015 FORU AGINDUA, apirilaren 22koa, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hori aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituena.*

Berotegi efektuko gasen gaineko zerga tributu itundua da eta estatuak une bakoitzean ezartzen dituen funtsezko eta formazko arau berberei jarraituz erregulatuko da, hala jasotzen baitu 34. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunak, 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen eta ordainketa ereduak onartu ahal izango dituzte. Eredu horietan gutxienez lurralde erkideko datu berberak agertuko dira, eta likidazio aldi bakoitzerako ordainketa epeak ezarriko dira, baina azken horiek funtsean ezin dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioari edo lurraldea dela-eta eskumena duen foru aldundiari egokituko zaio, segun eta estatuko araudian aipatutako azken kontsumitzaileek produktuak erabiltzen dituzten instalazio, ekipo edo aparatuak lurralde erkidean edo euskal lurraldean kokatuta dauden.

Berotegi efektuko gas fluordunak autokontsumitzen direnean, zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioari edo lurraldea dela-eta eskumena duen aldundiari egokituko zaio, autokontsumoa gertatzen den lurraldearen arabera.

Aurreko paragrafoetan jasotako gainerako kasuetan, zerga egitatea gertatzen den zergadunaren establezimenduaren lurraldeko administrazioak ordainaraziko du zerga.

Zerga horren erregulazioa jasota agertzen da Ingurumen arloko gaiak zergapetzeko neurriak ezarri eta bestelako neurri tributario eta finantzarioak onartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legean, bai eta 2013ko abenduaren 27ko 1042/2013 Errege Dekretuaren bidez onartutako zergaren Erregelamenduan ere.

Ekonomia Ituneko lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, foru erakundeek araudi propiorik egiten ez duten bitartean, lurralde erkidean indarrean dauden arauak aplikatuko dira. Arau horiek, dena dela, ordezko zuzenbidea izango dira beti.

Berotegi Efektuko Gasen gaineko Zergaren Erregelamenduak 5. artikuluan dioenez, eragiketen aitorpen laburbiltzaile bat aurkeztu behar dute 2013ko urriaren 29ko 16/2013 Legeko 5. artikuluaren zazpigarren apartatuan eta seigarren apartatuko 2. zenbakiaren lehen paragrafoan jasotakoari jarraituz, hurrenez hurren, zerga horretatik salbuetsita edo lotu gabe dauden gas fluordunen erosketak, salmentak edo entregak egiten dituzten fabrikatzaileek, inportatzaileek, batasun barruko eskuratzaileek eta hondakin kudeatzaileek.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 173/2015, de 22 de abril, por la que se aprueba el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establece la forma y procedimiento para su presentación.*

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 34 que el Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

No obstante, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

La exacción del Impuesto corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación competente por razón del territorio cuando los consumidores finales a los que se refiere la normativa estatal utilicen los productos objeto del Impuesto en instalaciones, equipos o aparatos radicados en territorio común o vasco.

Cuando los gases fluorados de efecto invernadero sean objeto de autoconsumo, la exacción del Impuesto corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación competente por razón del territorio donde este se produzca.

En el resto de supuestos no contemplados en los párrafos anteriores, la exacción corresponderá a la Administración donde radique el establecimiento del contribuyente en el que se produzca el hecho imponible.

La regulación del mencionado impuesto viene recogida en la Ley 16/2013, de 29 de octubre, por la que se establecen determinadas medidas en materia de fiscalidad medioambiental y se adoptan otras medidas tributarias y financieras, así como en el Reglamento del Impuesto, aprobado por el Real Decreto 1042/2013, de 27 de diciembre.

Según dispone la disposición adicional primera del citado Concierto Económico, en ausencia de una regulación foral propia, son aplicables las normas vigentes en territorio común, las cuales, en todo caso, tendrán carácter de derecho supletorio.

El artículo 5 del Reglamento del Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero establece que los fabricantes, importadores, adquirentes intracomunitarios, revendedores y gestores de residuos que realicen operaciones de compra, venta o entrega de gases fluorados que resulten exentas o no sujetas al impuesto de acuerdo con lo establecido en el artículo 5, apartado Siete, y primer párrafo del apartado Seis 2, respectivamente, de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, deberán presentar una declaración recapitulativa de operaciones.

EK\CV GAO-I-2015-03749

Foru agindu honen bidez onartu egiten da 586 eredua, salbuetsita dauden gas fluordunen erosketa, salmenta edo entregen aitorpen laburbiltzailea aurkeztekoa.

Honenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 586 eredua onartzea.*

Onartu egiten da 586 eredua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea», eta foru agindu honen I. eranskinean jasotzen da.

Bi ale ditu ereduak: Administrazioarena eta interesdunarena.

*2. artikulua. 586 eredua aurkeztera behartuak.*

586 eredua aurkeztu behar dute 2013ko urriaren 29ko 16/2013 Legeak, Ingurumen arloko gaiak zergapetzeko neurriak ezarri eta bestelako neurri tributario eta finantzarioak onartzen dituenak, 5. artikuluaren zazpigarren apartatuan eta seigarren apartatuko 2. zenbakiaren lehen paragrafoan jasotakoari jarraituz, hurrenez hurren, zerga horretatik salbuetsita edo lotu gabe dauden gas fluordunen erosketak, salmentak edo entregak egiten dituzten fabrikatzaileek, inportatzaileek, batasun barruko eskuratzaileek eta hondakin kudeatzaileek.

*3. artikulua. 586 eredua aurkezteko epeak.*

586 eredua martxoko lehen hogeita hamar egun naturaletan aurkeztuko da aurreko urte naturaleko eragiketei dagokienez.

Eredua aurkezteko azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, epea ondorengo egun baliodunera luzatuko da.

*4. artikulua. 586 eredua aurkezteko modua.*

1. 586 eredua paperean edo Internet bidezko igorpen elektronikoz aurkeztu ahal izango da. Horretarako, interesdunak «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu elektronikoen atarira jo beharko du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (www.gipuzkoa.eus).

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, 586 eredua igorpen telematikoz aurkeztu behar dute 2010eko azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, 1. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen dituen subjektu pasiboek, foru agindu horretan ezarritakoari jarraikiz. Orobat, zergapekoek, eredu horiek bide telematikoz aurkeztera behartuta egon gabe, modalitate hori aukeratzen badute, 1011/2010 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera egin beharko dute aurkezpena.

3. 586 ereduaren aurkezpena igorpen elektronikoz egingo da, foru agindu honen I. eranskinean jasotako diseinua duen «pdf betegarria» Internet bidez bidalita, eta, betiere, 2010eko azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozedurari jarraituz.

Eragiketen xehetasuna «pdf betegarrian» edo horrekin batera bidaliko den fitxategi baten bidez sartu ahal izango da, foru agindu honen II. eranskinean jasotako eduki eta diseinuaren arabera.

4. Paperezko aurkezpena aurreko apartatuan aipatutako «pdf betegarriaren» bidez egingo da, behin Administrazioaren alea eta aitortzailearena bete eta inprimatu ondoren.

Paperezko aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan

La presente orden foral viene a aprobar el modelo 586 para la presentación de la referida declaración recapitulativa de operaciones de compra, venta o entrega de gases fluorados que resulten exentas.

En su virtud

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 586.*

Se aprueba el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», que se adjunta como anexo I a la presente orden foral.

Dicho modelo consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el declarante.

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 586.*

Están obligados a la presentación del modelo 586 los fabricantes, importadores, adquirentes intracomunitarios, revendedores y gestores de residuos que realicen operaciones de compra, venta o entrega de gases fluorados que resulten exentas o no sujetas, de acuerdo con lo establecido en el apartado siete y en el primer párrafo del número 2 del apartado seis del artículo 5, de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, por la que se establecen determinadas medidas en materia de fiscalidad medioambiental y se adoptan otras medidas tributarias y financieras.

*Artículo 3. Plazos de presentación del modelo 586.*

La presentación del modelo 586 se efectuará durante los treinta primeros días naturales del mes de marzo con relación a las operaciones del año natural anterior.

Si el último día del plazo de presentación resultara sábado o inhábil, el plazo se prorrogará al día hábil siguiente.

*Artículo 4. Forma de presentación del modelo 586.*

1. La presentación del modelo 586 podrá efectuarse en soporte papel o mediante transmisión electrónica a través de Internet, para lo cual el interesado deberá acceder al portal de trámites y servicios electrónicos «Gipuzkoataria» a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se accederá en la dirección electrónica www.gipuzkoa.eus.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los sujetos pasivos a los que se refiere el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 1.011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica, estarán obligados a la presentación mediante transmisión electrónica del modelo 586, de conformidad con lo dispuesto en dicha Orden Foral. Así mismo, aquellos obligados tributarios que no estando obligados a la presentación telemática, opten por esta forma de presentación, deberán realizar la misma de conformidad con lo dispuesto en la citada Orden Foral 1.011/2010.

3. La presentación mediante transmisión electrónica por Internet se efectuará mediante el «pdf rellenable» ajustado al modelo del anexo I de la presente orden foral, y siguiendo el procedimiento previsto en la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

El detalle de las operaciones podrán incluirse en el «pdf rellenable» o a través de un fichero que se enviará simultáneamente con el «pdf rellenable», de acuerdo con el contenido y el diseño incluidos en el anexo II de la presente orden foral.

4. La presentación en papel se efectuará mediante el «pdf rellenable» al que se refiere el apartado anterior, previa impresión, una vez cumplimentado, de los ejemplares para la Administración y para el declarante.

La presentación en papel podrá efectuarse en el Servicio de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas

EK\CV GAO-I-2015-03749

egin ahal izango da (Errotaburu pasealekua 2, 20108 Donostia) edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulego batean.

*Xedapen iragankorra.*

2014ko eragiketen aitorpen laburbiltzailearen 586 eredua 2015eko maiatzaren 29ra arte aurkeztu ahal izango da.

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2015eko apirilaren 22a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(3749)

II. ERANSKINA

*«Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua telematikoki aurkezteko sortzen diren fitxategiek bete beharreko diseinua.*

Inportatu beharreko fitxategiak testu formatua izango du, eremuak (;) karakterearen bidez bereizita.

Gehienez 1.000 erregistro inportatuko dira aitorpen bakoitzeko.

Inportatu beharreko erregistroaren formatua:

de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Paseo de Errotaburu 2, 20018 San Sebastián) o en alguna de las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas.

*Disposición transitoria.*

El plazo de presentación del modelo 586 de la declaración recapitulativa de operaciones correspondiente al año 2014 se podrá realizar hasta el 29 de mayo de 2015.

*Disposición final.*

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 22 de abril de 2015.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(3749)

ANEXO II

*Diseño al que deben ajustarse los archivos que se generen para la presentación telemática del modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero».*

El fichero a importar será de formato texto con los campos separados por el carácter (;).

El límite máximo de registros a importar por declaración es 1000.

Formato del registro a importar:

| *Eremua / Campo* | *Luzera / Longitud* | *Mota / Tipo* | *Azalpena / Descripción* |
|---|---|---|---|
| 1 | 8 | A | Aitortzailearen GFJ<br>CAF declarante |
| 2 | 1 | A | Identifikazio mota<br>Tipo de identificación |
| 3 | 15 | A | IFZ, IFZ-BEZ<br>NIF, NIF-IVA |
| 4 | 50 | A | Izena edo sozietate izena<br>Nombre o razón social |
| 5 | 8 | A | Hartzailearen GFJ<br>CAF destinatario |
| 6 | 6 | A | Epigrafea<br>Epígrafe |
| 7 | 11,2 | N | Zergari lotu gabeko kopurua (kilogramotan, bi hamartarrekin)<br>Cantidad no sujeta (en kilogramos con dos decimales) |
| 8 | 11,2 | N | Salbuetsitako kopurua (kilogramotan, bi hamartarrekin)<br>Cantidad exenta (en kilogramos con dos decimales) |

*Eremuen azalpena.*

- 1etik 5era bitarteko eremuak (aitortzaile eta hartzailearen identifikazioa):

Autokontsumo salbuetsiak aitortzen badira, hartzailea aitortzailea bera izango da, eta hura identifikatuko da autokontsumo salbuetsia lotu zaion gas fluordunen jarduera kodearekin (GFJ) (GF, GV edo GG) (1. identifikazio mota).

Salmenta edo entrega salbuetsiak aitortzen badira, hartzailea identifikatzeko, zergari buruzko urriaren 29ko 16/2013 Legean jasotakoaren arabera aplikagarria den salbuespenaren arabera egin beharko da bereizketa:

— 5.7.1.a) artikuluko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GF edo GV) identifikatuko da (1. identifikazio mota).

— 5.7.1.b) artikuluko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GO) identifikatuko da (1. identifikazio mota).

*Descripción de los campos.*

- Campos 1 a 5 (identificación declarante y destinatario):

Si se declaran autoconsumos exentos, el destinatario es el propio declarante y se identifica con el CAF (GF, GV o GG) al que ha vinculado el autoconsumo exento (tipo de identificación 1).

Si se declaran ventas o entregas exentas, para identificar al destinatario debe diferenciarse en función de la exención aplicable conforme a lo dispuesto en la Ley del Impuesto 16/2013, de 29 de octubre:

— Exención del artículo 5, apartado siete 1 a): el destinatario se identifica con su CAF (GF o GV) (tipo de identificación 1).

— Exención del artículo 5, apartado siete 1 b): el destinatario se identifica con su CAF (GO) (tipo de identificación 1).

EK\CV GAO-I-2015-03749

— 5.7.1.c) artikuluko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GT) identifikatuko da (1. identifikazio mota).

— 5.7.1.d) artikuluko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GN) identifikatuko da (1. identifikazio mota). Hartzailea ekipo edo aparatu berrien fabrikatzailearen desberdina bada, bere IFZrekin eta sozietate izenarekin identifikatuko da (2. identifikazio mota).

— 5.7.1.e) artikuluko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GM) identifikatuko da (1. identifikazio mota).

— 5.7.1.f) artikuluko salbuespena: hartzailea bere IFZrekin eta sozietate izenarekin identifikatuko da (2. identifikazio mota).

— 5.7.1.g) artikuluko salbuespena: hartzailea identifikatuko da bere IFZrekin eta sozietate izenarekin, itsasontzi edo aireontziaren jabearen arabera (2. identifikazio mota); bere IFZ-BEZarekin eta sozietate izenarekin (3. identifikazio mota); edo bere datuak ez jarriz (4. identifikazio mota).

— 5.7.2 artikuluaren lehen paragrafoko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GI) identifikatuko da (1. identifikazio mota).

— 5.7.2 artikuluaren bigarren paragrafoko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GC) identifikatuko da (1. identifikazio mota).

— 5.7.2 artikuluaren laugarren paragrafoko salbuespena: hartzailea bere GFJ kodearekin (GD) identifikatuko da (1. identifikazio mota).

Zergari lotu gabeko salmenta edo entregak aitortzen badira, hartzailea identifikatzeko, gas fluordunen helmugaren arabera bereizi behar da:

— Europar Batasunaren barruan badago, hartzailea bere IFZ-BEZarekin eta sozietate izenarekin identifikatuko da (3. identifikazio mota).

— Europar Batasunetik kanpo badago, hartzailea bere datuak ez jarriz identifikatuko da (4. identifikazio mota).

- 6 eremua (epigrafea):

Autokontsumo, salmenta edo entregari lotutako berotegi efektuko gas fluordunari dagokion epigrafea jaso behar da, 2013ko urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5.hamaika artikuluan jasotakoari jarraituz aplikagarri zaion tarifaren arabera:

— Gasak izateagatik 1. tarifa aplikagarri bazaio, gas motaren arabera dagokion epigrafea jaso beharko da, 1.1etik 1.25era bitarteko epigrafeen artetik, biak barne.

— Prestakinak izateagatik 2. tarifa aplikagarri bada, 2.1 epigrafea jaso beharko da.

— Gas edo prestakin birsortuak edo birziklatuak izateagatik 3. tarifa aplikagarri bada, 3.1 epigrafea jaso beharko da, gasak izanez gero, edo 3.2 epigrafea, prestakinak izanez gero.

- 7. eremua (zergari lotu gabeko kopurua):

Hemen jaso beharko da aitorpenari dagokion urte naturalean 2013ko urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5.seigarrena.2 artikuluaren lehen paragrafoan ezarritakoaren arabera zergari lotu gabe saldu edo entregatu den kopurua. Kopuru hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

- 8. eremua (salbuetsitako kopurua):

Hemen jaso beharko da aitorpenari dagokion urte naturalean 2013ko urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5.zazpi artikuluan ezarritakoaren arabera salbuetsita saldu, entregatu edo autokontsumitu den kopurua. Kopuru hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

— Exención del artículo 5, apartado siete 1 c): el destinatario se identifica con su CAF (GT) (tipo de identificación 1).

— Exención del artículo 5, apartado siete 1 d): el destinatario se identifica con su CAF (GN) (tipo de identificación 1). Si el destinatario es distinto del fabricante de equipos o aparatos nuevos se identifica con su NIF y razón social (tipo de identificación 2).

— Exención del artículo 5, apartado siete 1 e): el destinatario se identifica con su CAF (GM) (tipo de identificación 1).

— Exención del artículo 5, apartado siete 1 f): el destinatario se identifica con su NIF y razón social (tipo de identificación 2).

— Exención del artículo 5, apartado siete 1 g): el destinatario se identifica, en función del propietario del buque o aeronave, con su NIF y razón social (tipo de identificación 2), su NIF IVA y razón social (tipo de identificación 3) u omitiendo sus datos (tipo de identificación 4).

— Exención del artículo 5, apartado siete 2, primer párrafo: el destinatario se identifica con su CAF (GI) (tipo de identificación 1).

— Exención del artículo 5, apartado siete 2, segundo párrafo: el destinatario se identifica se identifica con su CAF (GC) (tipo de identificación 1).

— Exención del artículo 5, apartado siete 2, cuarto párrafo: el destinatario se identifica se identifica con su CAF (GD) (tipo de identificación 1).

Si se declaran ventas o entregas no sujetas, para identificar al destinatario debe diferenciarse en función del destino de los gases fluorados:

— Si está dentro de la Unión Europea, el destinatario se identifica con su NIF IVA y razón social (tipo de identificación 3).

— Si está fuera de la Unión Europea, el destinatario se identifica omitiendo sus datos (tipo de identificación 4).

- Campo 6 (epígrafe):

Deberá consignarse el epígrafe correspondiente al gas fluorado de efecto invernadero objeto de autoconsumo, venta o entrega en función de la tarifa que, conforme a lo dispuesto en el artículo 5.Once de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, le sea aplicable:

— Si es aplicable la tarifa 1.ª, por tratarse de gases, deberá consignarse del epígrafe 1.1 al 1.25, ambos inclusive, el que le corresponda según el tipo del gas de que se trate.

— Si es aplicable la tarifa 2.ª, por tratarse de preparados, deberá consignarse el epígrafe 2.1.

— Si es aplicable la tarifa 3.ª, por tratarse de gases o preparados regenerados o reciclados, deberá consignarse el epígrafe 3.1, si son gases, o el epígrafe 3.2, si son preparados.

- Campo 7 (cantidad no sujeta):

Deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de venta o entrega no sujeta conforme al artículo 5.Seis.2, primer párrafo, de la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresará en kilogramos con dos decimales y se agrupará por operador y epígrafe.

- Campo 8 (cantidad exenta):

Deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de venta, entrega o autoconsumo exento conforme al artículo 5.Siete de la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresara en kilogramos con dos decimales y se agrupara por operador y epígrafe.

EK\CV GAO-I-2015-03749

**Administrazioaren alea** / Ejemplar para la Administración

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

*8400055862015*

# BEROTEGI EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGA
## IMPUESTO SOBRE LOS GASES FLUORADOS DE EFECTO INVERNADERO

**Aitorpen laburtzailea**
Declaración recapitulativa

# 586

Organismo kodea / Código de Organismo:
**75 03 6**

| | | |
|---|---|---|
| **Identifikazioa (1)** Identificación | **IFZ** / NIF | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** / Apellidos y nombre, o razón social |
| | **Helbidea, udalerria eta probintzia** Domicilio, localidad y provincia | |

| | | |
|---|---|---|
| **Jarduueraren kodea (2)** Código de actividad | **GFJ** CAF | |

| | |
|---|---|
| **Aitorpenaren identifikazioa (3)** Identificación de la declaración | **Ekitaldia** Ejercicio ☐☐☐☐ |

| | | |
|---|---|---|
| **Aitortutako datuen laburpena (4)** Resumen de los datos declarados | **Eragiketa kopuru osoa** Número total de operaciones | |
| | **Kilogramo kopuru osoa** Total kilogramos | |

| **Hirugarrenekin egindako eragiketak eta autokontsumoak (5)** Operaciones realizadas con terceros y autoconsumos | **Aitortzailearen identifikazioa** Identificación del declarante | **Hartzailearen identifikazioa** Identificación del destinatario | | | | **Epigrafea** Epígrafe | **Zergari lotu gabeko kantitatea** Cantidad no sujeta | **Salbuetsitako kantitatea** Cantidad exenta |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GFJ** CAF | **Mota** Tipo | **IFZ** NIF | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** Apellidos y nombre, o razón social | **GFJ** CAF | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

**Data** / Fecha ......................................................................................
**Subjektu pasiboaren sinadura** / Firma del sujeto pasivo

EK\CV GAO-I-2015-03749

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

*8400055862015*

# BEROTEGI EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGA
# IMPUESTO SOBRE LOS GASES FLUORADOS DE EFECTO INVERNADERO

## Aitorpen laburtzailea
## Declaración recapitulativa

# 586

Organismo kodea / Código de Organismo:
**75 03 6**

| | | |
|---|---|---|
| **Identifikazioa (1)** Identificación | **IFZ** / NIF | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** / Apellidos y nombre, o razón social |
| | **Helbidea, udalerria eta probintzia** Domicilio, localidad y provincia | |

| | | |
|---|---|---|
| **Jarduerareren kodea (2)** Código de actividad | **GFJ** CAF | |

| | |
|---|---|
| **Aitorpenaren identifikazioa (3)** Identificación de la declaración | **Ekitaldia** Ejercicio |

| | | |
|---|---|---|
| **Aitortutako datuen laburpena (4)** Resumen de los datos declarados | **Eragiketa kopuru osoa** Número total de operaciones | |
| | **Kilogramo kopuru osoa** Total kilogramos | |

| **Hirugarrenekin egindako eragiketak eta autokontsumoak (5)** Operaciones realizadas con terceros y autoconsumos | **Aitortzailearen identifikazioa** Identificación del declarante | **Hartzailearen identifikazioa** Identificación del destinatario | | | | **Epigrafea** Epígrafe | **Zergari lotu gabeko kantitatea** Cantidad no sujeta | **Salbuetsitako kantitatea** Cantidad exenta |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GFJ** CAF | **Mota** Tipo | **IFZ** NIF | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** Apellidos y nombre, o razón social | **GFJ** CAF | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

**Data** / Fecha ....................................................................................
**Subjektu pasiboaren sinadura** / Firma del sujeto pasivo

**Aitortzailearen alea** / Ejemplar para el declarante



EK\CV GAO-I-2015-03749

## Inprimakia betetzeko jarraibideak

**Aitortzailearen identifikazioa (1)**

Aitorpenari dagokion zergapekoaren izena, deiturak edo sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) jarri behar dira.
Aitorpenari dagokion zergapekoak jarduera egiten duen establezimenduaren helbidea edo, hala badagokio, haren zerga helbidea jarri behar da.

**Aitortzailearen jarduera kodea (2)**

Aitorpenari dagokion zergapekoaren jarduera identifikatzen duen gas fluordunen jarduera kodea (GFJ) jarri behar da.
Aitortzailea jarduera kode baten baino gehiagoren titularra denean, eremu hau ez da beteko. Kasu horietan, (5) blokearen jarduera kodeen araberako banaketak aipatuko dira.

**Aitorpenaren identifikazioa (3)**

**Ekitaldia:** aitortzen den urtearen lau zifrak jarri behar dira.

**Aitortutako datuen laburpena (4)**

**Eragiketa kopuru osoa:** aitorpenean jasotako eragiketa kopuru osoa jarri behar da. Eragiketak hartzailearen eta epigrafearen arabera taldekatu behar dira.
**Kilogramo kopuru osoa:** aitorpenean jasotako gas fluordunen kopuru osoa jarri behar da, kilogramotan adierazita.

**Hirugarrenekin egindako eragiketak (5)**

**Aitortzailearen identifikazioa:** zutabe hau bete behar da aitortzailea GFJ kode bat baino gehiagoren titularra denean, zeren eta bereizita aitortu behar baitira horietako bakoitzari dagozkion eragiketak.

**Hartzailearen identifikazioa**. Honako datu hauek jaso behar dira, agindu honen II. eranskinean jasotakoari jarraituz, identifikazio motaren arabera:

1. identifikazio mota: GFJ

2. identifikazio mota: IFZ eta sozietate izena.

3. identifikazio mota: Europar Batasuneko IFZ eta sozietate izena.

4. identifikazio mota: bete gabe (hartzailearen daturik jarri gabe), Europar Batasunetik kanpokoa denean.

Hala badagokio, GFJ kodea betetzean, jarraitu behar zaio 2014ko apirilaren 29ko HAP/685/2014 Aginduak, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko autolikidazioko 587 eredua onartzen duenak, III. eranskinean jasotakoari.

**Epigrafea:** aitortzen den gas fluordunen epigrafea jarri behar da, agindu horren III. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Zergari lotu gabeko kantitatea:** hemen jaso behar da aitortzen den gas fluordunen zer kantitate ez dagoen zergari lotuta, agindu horren II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Salbuetsitako kantitatea:** hemen jarri behar da aitortzen den gas fluordunen zer kantitate dagoen zergatik salbuetsita, agindu horren II. eranskinean jasotakoaren arabera.

## Instrucciones para cumplimentar el modelo

**Identificación del declarante (1)**

Deberá consignarse el nombre, apellidos o razón social, y NIF del obligado al que se refiere la declaración

Deberá consignarse la dirección del establecimiento donde ejerza su actividad el obligado al que se refiere la declaración o, en su caso la de su domicilio fiscal.

**Código de actividad del declarante (2)**

Deberá consignarse el código CAF que identifica la actividad del obligado tributario al que se refiere la declaración.
Cuando el declarante sea titular de más de un código de actividad este campo no se cumplimentará. En tales casos, se indicarán los desgloses del bloque (5) por códigos de actividad.

**Identificación de la declaración (3)**.

**Ejercicio:** Deberá consignarse las cuatro cifras del año al que se refiere la declaración.

**Resumen de los datos declarados (4)**

**Número total de operaciones**: Deberá consignarse el total de operaciones incluido en la declaración. Las operaciones se agruparán por destinatario y por epígrafe.
**Total kilogramos:** Deberá consignarse la cantidad total, expresada en kilogramos, de gases fluorados incluida en la declaración.

**Operaciones con terceros (5)**

**Identificación del declarante**: Esta columna deberá de cumplimentarse únicamente cuando el declarante sea titular de varios CAF, ya que deben declararse de forma separada las operaciones correspondientes a cada uno de ellos.

**Identificación del destinatario:** Deberá consignarse los siguientes datos, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, en función del tipo de identificación.

Tipo de identificación 1: CAF

Tipo de identificación 2: NIF y razón social.

Tipo de identificación 3: NIF Unión Europea y razón social.

Tipo de identificación 4: En blanco (sin consignar datos del destinatario), cuando es de fuera de la UE.

En su caso, el CAF deberá consignarse de acuerdo con lo dispuesto en el anexo III de la orden HAP/685/2014, de 29 de abril, por la que se aprueba el modelo 587 "Impuesto sobre gases fluorados de efecto invernadero, autoliquidación.

**Epígrafe:** Deberá consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, el epígrafe correspondiente a los gases fluorados objeto de la declaración.

**Cantidad no sujeta:** Deberá consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad no sujeta de gases fluorados objeto de la declaración.

**Cantidad exenta:** Deberá consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad exenta de gases fluorados objeto de la declaración.

EK\CV GAO-I-2015-03749